

BEÑAT ONAINDIA GOÑI jaunak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2012ko uztailaren 2an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

6.- UDAL AZOKAKO INSTALAZINOEN BARRIKUNTZA OBREN ESLEIPENA.

Xedea

Udal azokako instalazinoen barrikuntza obrak esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko apirilaren 23an Tokiko Gobernu Batzarrak, udal azokako instalazinoen barrikuntza obrak egiteko proiektua eta administrazio baldintza zehatzen orria onartzea erabagi eban.

Bigarrena: 2012ko apirilaren 23an iragarkia web orrialdean argitaratu zan. Epe barruan ez da parte hartzeko eskaririk jaso.

Hirugarrena: 2012ko maiatzaren 11n jardunbide negoziaduan parte hartzeko gonbiteak bialdu ziran.

Argudioak

Bakarra: Udal azokako instalazinoen barrikuntza obren esleipenerako kontratazino prozesura honeek enpresak aurkeztu dira:

- Etxegintza Lupategi, SL
- Tgarri, SL

Jon Goitia Leniz arkitektoak horreek enpresek aurkeztutako dokumentazinoa aztertu ondoren egindako txostenean ikusi daitekeen moduan, baldintza administratiboetan zehaztutako kalifikazino sistemea kontuan harturik, Etxegintza Lupategi SLk lortu dau punturik gehien.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udal azokako instalazioen barrikuntza obrak ETXEGINTZA LUPATEGI, SL enpreari esleitzea, 187.912,38 eurotan (BEZ barik).

BIGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea hamar (10) laneguneko epean, esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta holan egin ezean udalak kontratua bertan behera itzi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2012ko uztailearen 4an.

ONETSIA
ALKATEA